



3000

2010eko maiatza - 9. zenbakia

Goizuetako
aldizkaria



Goizuetan, Umore Ona

eta beste hainbat kontu





zenbaki honetan



aurkibidea

- **3**.....Aurkezpena
- **4-5**.....Atzera begira. 1993
- **6-7**.....Nikaraguarrak Goizuetan
- **8-11**.....Saioa Taberna Tailandia eta Laos-en barna
- **12-13**.....Hitzokei
- **14-15**.....Goizueta Jose Javier Etxeberriaren begietan
- **16-19**.....Umore Ona Peña. 50 urte
- **20-22**.....Azaro kulturala
- **23**.....Ezetz asmatu
- **24-25**.....Txinoko jaiak
- **26**.....Ipuin erotikoa
- **27**.....Inkesta
- **28**.....Zure txanda

- **Argitaratzailea:**
Goizuetako kultur taldea eta Goizuetako Udalaren Euskara Zerbitzua
- **Diseinua:**
Allende Arnaiz
- **Maketazioa:**
astidiseinua.com
- **Laguntzaileak:**
Goizueta, Arano, Leitza eta Aresoko Euskara Zerbitzua.





Goizuetan, Umore Ona eta beste hainbat kontu

Umore oneko herria da Goizuetan. Umore Ona elkarte hor dugulako, alde batetik, eta goizuetarrok bizitzari umore onez begiratzen ere badakigula askotan erakutsi dugulako, bestetik. Bi ideia horiek, eta beste batzuk, aurkituko dituzu aldizkari honetan.

Umore Ona Peñaren sorreraren 50. urteurrena ospatu zen 2009. urtean. Horren berri eman dugu aldizkarian. Izan ere, ez da nolana hiko marka: 50 urte! Aisa esaten da, baina aldizkari hau irakurtzen ari zareten asko artean ez zineten jai. Beste batzuk bai,

eta horien testigantza ere jaso nahi izan dugu, ordukoak gogoratzeko.

Urteak aurrera joan dira, bai, baina Peña sortzea ekarri zuen umore hark bere horretan dirauela pentsatu nahi dugu. Umore ona izanen zuten ordukoek, eta umore onari eusten diote gaurko goizuetarrek ere. Horren erakusgarri txiki bat dira, besteak beste, aldizkarian jasotako kronikak edo erreportajeak: Txinoko jaiak edo Azaro Kulturala esate baterako. Urtean zehar hainbat aldiz elkartzen gara goizuetarrak bestarako, aldarte onez.

Herriko bizitzan badira bestelako

momentuak ere, jakina, ez da dena besta hutsa. Eta bestelako alderdi horietako batzuk ere ekarri ditugu hona, testu eta irudi bidez: Goizuetako argazkiak, goizuetarrei egindako galderak, erotismo pixka bat, bidaiakronikak, gurera kanpotik etorritakoen testigantza, duela urte batzuetako kontuak freskatzea, hizkuntzarekin jostatzea...

Tira, gustuko izanen duzuelakoan, eta herria nahiz herritarrak are gehiago estimatzen lagundu duzelakoan, hementxe duzue Xapo aldizkariaren IX. zenbakia, dasta dezazuen. On egin.



1993

Udalak euskara hutsean funtzionatzeko erabakia hartu zuen urtea.

zenburuan aipatutako urteko otsaila zen, H.Bko kidez osatutako udal batzak Herriko Etxea euskara hutsean funtzionatzera eramanen zuen akordioa hartu zuenean. Horixe zioen behintzat T tipi-ttapa aldizkariko 105. zenbakiak. Udal Elebakarren Mankomunitatean (UEMA) sartzeko erabakia ere hartu zuen udalak pleno berean.

Hori baino lehenago, ilbeltzaren 16an, bertsozalez bete zen zine aretoa Gorgori baserri erre berriaren alde Udalak antolatutako jaialdian. Liza-sok, Sarasuak, Muruak, Arozenak, Telleriak eta Silbeirak kantatu zuten. 1.000 pezeta kobratzen zen sarrera. Otsailean berriz, jakina, karnabalak ospatu ziren. Astearte inoteko dantzaldia Martin trikitilari ospetsuaren taldearen esku egon zen. Hilabete berean hasi zen Arkupeak, jubilatuen elkarte, hedatzen gurean. Mientonen

Milagrose eta Anttoniko Apezetxea ziren arduradun. Umore Onak, bestalde, ohiko batzarra burutu zuen. 7 bazkide berri hartu zituen bere baitan. Martxoaren 8an eskolan burutu beharreko bertso saioa ere iragartzen zuen T tipi-ttapa. Maialen, Estitxu eta Loidirekin hain zuzen.

ETB eta beste zenbait kate ongi ikusi ahal izateko errepetidorea egin zuen Udalak Soratxikin. EITBrekin sinatu zuen akordioa herriak horretarako.

Kapelorriko Antonio eta Elenak 1993ko martxoan bete zituzten 40 urte elkarrekin. Baita ederki ospatu ere. (1. argazkia)

Helduen bertso eskola ere martxan zegoen orduan. Joxe Manuel Oyarzabal zen irakaslea eta 7-8 gazte elkartzen ziren igandero.


“Arte eta Kultura” kanpainaren programazioa argitaratu zen apirile-

an. “Kojon Prieto y los Huajolotes” eta “Kiko, Moko eta Koko” pailazoen emanaldiak iragartzen ziren besteak beste. Antolakuntza Udala eta Umore Onarena zen, eta aurrekontua 500.000 pezetakoa. Urdiñolako parajetatik azizendak erretiratzeko agindu zorrotza ere orduan eman zuen Leitzak. Baita Artikutzan behi eta ahuntzen kontra Donostiak bati-dak baimendu zituelako abisua ere.

Maiatzaren 15ean Herri Olinpiaden I. edizioa antolatu zuen Umore Ona Elkarteak. Arrakasta ikaragarria izan zuen ekimenak eta goiz eta arratsaldeko lehiaren ondoren argazkiko Andoni, M^o Jose, Mikel, Aitor, Juan eta Anttonek osatutako taldea suertatu zen garaile. (2. argazkia)

Mendi Bizikleta ibilaldiaren III edizioa ere maiatzean ospatu zen.

Umore Ona dantza taldea berpiztu eta hobetzeko helburuarekin aldake-



tak iragartzen ziren ekainean. 50 neska mutikok osatzen zuten taldea eta 13 emanaldi eskaini zituen aurreko urtean, 1992an alegia. (3. argazkia)

Gainera, Rosa Mari eta Izaskunek emakumeen paleta txapelketa irabazi zuten. (4. argazkia)

Manolo Aizkorbek eta Andoni Zugarramurdik Pirineotako GR-11z ezagutzen den mendi ibilaldia osatu zuten uda horretan. 28 egun guztira. Amaia Lujanbiok, berriz, (11 urte) Nafarroa eta Euskal Herriko lasterkako zenbait garaipen eskuratu zituen 1993ko udaberri eta udaran.

Festak, jakina, ikaragarriak izan ziren. Amabirgin bezperako kontzertuak jendetza handia bildu zuten. Ez da harrizkoa, Sorotan Belek eta Mikel Laboa handiak kantatu baitzuten besteak beste.


85 urtetik goitikoan omenez festa antolatu zuen Arkupek herrian irailean. Omendutakoak 24 Goizuetar eta 5 Aranoar guztira. Bestalde, Artikutzako gardak artzainei isunak jartzeko eskubiderik ez zutela jakinarazi zen hilabete horretan. Beraz, ordu arte emandako zigor guztiak indarrrik gabe gelditzen ziren.

Xalto sariaren lehen edizioa- Nafarroako eta Iparraldeko bertsolari gazteen artean jokatzeko zena- urriaren 16rako iragartzen zen Ttipi-ttapan. Egun batzuk lehentxeago, Felix Loiarte hautatu zuen presidente Guraso Elkarteak. Patxi Bakerok entrenatzen zuten Umore Ona areto futboleko taldea, berriz, Gipuzkoako

Ligaren III. mailan ari zen jokatzeko. Arrunt ongi gainera aurreneko urteazateko, lehenbiziko hiru partiduetatik bi irabazi baitzituzten. Urria zen baita ere Ttipi-ttapak herriko emakume ehiztari bakarra, Juanita San Miguel alegia, elkarrizketatu zuenean.

Azaroaren 6an egun osoko festa antolatu zuen Umore Ona Elkarteak bere atal guztiak omentzeko. Xole, Rosa Mari, Elena eta Patxik, dantza taldeko irakasleak laurak, omenaldi berezia jaso zuten. Egun batzuk lehenago "Axurak" 116 kg-ko basurdea bota zuen.

Urtea bukatzean zegoela hasi ziren Ixkibiko Zubia erakitzen. Iruñak eman zituen 21 milioi pezeta horretarako. Soratxikira, berriz, telebista errepitidorea bertan zegoelako, bidea hormigoitu zuen Nafarroako Gobernuak. 36.5 milioi pezetako kostuarekin. Alkainzuriain auzokoek hagitz gustora hartu zuten erabakia. Bien bitartean, IV. Egin Mus txapelketako Goizuetako kanporaketan irabazi zuten Miel eta Albertok. (5. argazkia)





Nikaraguarak Goizuetan

Euskaldunak sarri ibili izan gara munduan zehar bizi hobearen bila. Batzuetan, bizimodua han egiten saiatuz eta, gehienetan, xox batzuk egin eta Euskal Herrira itzultzeko asmotan. Orain, beste herrietatik etortzen da jendea hona bizimodua hobetzeko asmoz; baita Goizuetara ere, tartean, Nikaraguako Belkis Herrera eta Arlen Mendoza. Belkis orain lau urte etorri zen eta Arlen orain bi urte eta erdi eta harrezkero ez dute ozeanoa berriz zeharkatu.

Elkarrizketa honen bidez, beraien-gana gerturatu eta handik honarako aldaketa hori nola bizitu duten galde-tu diegu. Eta beraien esanak aditzean, Mikel Laboak maisuki kantatutakoaz oroitu gara: “Nekez uzten du bere sor-terria sustraiak han dituenak...”

Une gogorak eta ilusioak elkarre-kin. Bizitza erabat aldatu zaie Goi-zuetara etortzean 26 eta 27 urteko bi gazteei. Baina pozik hartu dute elka-rrizketa-proposamena eta beraien iri-tzia kontuan hartzea eskertu digute. Penak kontatzean, parramurritx etengabea ahoan. Eta Belkisen alabak bere lehen hitzak elkarrizketan sartu nahian zebilela, Belkisen hitzak eus-karaz: “Uxue, ixil-ixilik, e?”

• Nolakoa izan zen Goizue-tara iritsi zineteneko garaia?

ARLEN: Abuztuaren 18an etorri nin-tzen, 2007an, eta festak ziren. Izeba bat egona zen aurretik eta herria tti-kia eta lasaia zela esana zidan eta ha-rritua gelditu nintzen herriko giroa eta mugimendua ikusita. Pentsatu nuen: “Bai herri alai!” Laster kontu-ratu nintzen nire izebak arrazoi zuela: oso lasaia da! Baina hasiera oso poli-tta izan zen, poteoa ezagutu nuen... oso “guay”a izan zen. Modestoren etxean ere arrunt ongi hartu naute eta hori oso inportantea da.

BELKIS: Ederki oroitzen naiz ni ere

hasiera hartaz. 2006ko martxoaren 17a zen eta Manolorekin etorri nin-tzen. Niretzat hura abentura bat zen: beste herri bat, beste kultura bat eza-gutzea... Aurreneko aldia zen Nika-ragua eta Hondurasetik kanpo atera-tzen nintzela! Herria haundiagoa espe-ro nuen... ez dakit. Akaso, Mano-lok esana zidalako Goizuetan Barrio Txino ere bazegoela eta galdu egin zintezkeela. Nik txinoen etxeak ere imaginatu nituen baina, herria ezagu-tu nuenean, Manoloren beste broma bat zela konturatu nintzen [barrez].

• Zerk harritu zaitu gehien?

A: Denak harritu ninduen, orokorre-an. Adibidez, janaria arraroa da he-men. Gauza asko ez ditut jaten: os-trak, ardi gazta... Baina gauza asko oso goxoak dira.

B: Niri gauza berriak probatzea beti gustatu izan zait eta janariarekin ez dut arazorik. Ez naiz goseak hilko! Baina hemen... zenbat jaten duzue?! Ikaragarri! Ni izutua lehen aldiz jan nuenean hemen: bi platera, ta postrea, ta kafea!! Han bakarra jaten dugu, plater konbinatu bat.

A: Nire amari esaten diodanean, ez du ulertzen: “Orduan, otorduro bi otordu egiten dituzue?” esaten dit. Hemen jan “behar” dira bi platera. Asko jaten da, baina elikadura oso ona da hemen.

• Zer beste diferentzia ikus-ten duzu zure herriarekiko?

B: Kultura eta ohiturak ere oso dife-renteak ditugu: hura atea irekita di-tuen herrialde bat da. Han dirurik ez dugu tabernara joateko eta besteen etxeetan egoten gara. Hemen arraroa

da bestearen etxera joatea. Baina guri arraroa tabernara joatea egiten zaigu! Edo plazara irtetea. Guk patioak di-tugu gure etxeetan eta umeak hara jo-aten dira jolastera, ez plazara. Igande-tan bakarrik ateratzen gara.

A: Gu han bestearen etxean sartuta bizi gara! Han atea irekita egoten di-ra egun osoan, literalki.

B: Eta klima. Han klima tropikal le-horra dugu: bero egiten du, batez bes-teko tenperatura 28 gradu da eta euri gutxi egiten du. Eta, egiten duenean, desastreak eragiten ditu: hurakanak eta euriteak egoten dira. *Niña* eta *Ni-ño* fenomenoak daude: *Niña* euri asko da eta *Niño* lehortea. Eta *Mitch* hur-a-cana oso gogorra izan zen.

[*Mitch* izan zen gogorrenetako bat 1998an: bere ondorioz, 2.515 pertso-na hil ziren eta 885 desagertu Nikara-guan eta 11.000 hil eta 8.000 desa-gertu Ertamerikan].

A: Behin, hona etorri berritan, euriak atertzen ez zuenez, hurakan bat heldu zela uste nuen! Eta Modesto, aterkia hartu eta lasai-lasai atera zen kalera: “Hemen ez dago hurakanik!! Hemen hotz egiten du.

B: Guk esaten dugu hemengo euri pixka bat hara joan behar litzatekee-la! Edo orain, amari esaten diodanean hemen elurra egiten duela hara elur pixka bat eramateko esaten dit: bero egiten du han!!

Hemen hotza egiten du. Etorri nintze-nean, Hernaniko termometroan ikusi nuenean 14 gradu... 14 GRA-DU!!!!!! Hori hotza! Eta zuentzat hori tenperatura ona da...

A: Nik ez nuen espero halako hotzik!! Gu hango berora gaude ohituta. Bai-na gero gauza arraroa gertatzen zait hemen: hemen beroa egiten duenean,



ezin dut erraz jasan: “sofokatu” egiten nau! Ez dut ulertzen, hotza egiten duenean beroa nahi dut eta beroa egiten duenean, hotza... Beroa hezeagoa delako izango da.

B: Eta jendea, jendea oso “bullosoa” da han [*bulliciosa*].

A: Bestetik, hemen andreei “de tu” hitz egin behar zaie! Ezin zaie “de señora” tratatu. Guretzat edukazio kontua da. “Usted”/“vos” erabiltzen dugu guk han eta hemen ez zaie gustatzen. Hemen batzuk irainduak sentitzen dira eta beste batzuentzat “oso elegante hitz egiten dugu”, baina han horrela hitz egiten dugu. Helduei “de usted” eta besteiei, dugun konfiantzaren arabera, “de vos”. Han “tu” ez da existitzen, “vos” erabiltzen dugu. Gure hitz egiteko modua da, baina hemen oso edukazio onekoa, “onegikoa” hartzen da.

B: Manolok “de usted” hitz egiten dit, niri eta Nikaraguakoei, nahiz eta nik “de tu” hitz egiteko esan. Nikaraguan hala ikasi zuen eta hala egiten du.

• Topikoa edo egia: hemen-go jendea itxia?

B eta A: Bai zera! Denetatik dago, baina hemengo jendea atsegina da. Gu gara askotan ixten garenak!!

A: Eta hemen jende guztiak “aio!” esaten du! Hori guretzat arraroa da, han bakarrik ezagunei egiten diegu agur eta hemen denek agurtzen gaituzte, baita ezezagunek ere! Hemen batzuk antipatikak garela esaten digute.

B: Batzuetan “katalogatua” sentitzen zara. Liburua azalarengatik epaitzen dutela iruditzen zaizu.

A eta B: Eta jendea estresatua bizi da hemen: lana, lana ta lana. Eta ez dute

atseden hartzen. Lana “a pecho” hartzen dute eta agobiatu egiten dira. Oso arduratsuak dira. Gero, horrek bere alde onak ditu: oporrak daude, bakoitzak bere kotxea du... aberastasun handia dago.

• Zer gustatzen zaizu gehien gure herrian?

A eta B: Mediku asistentzia eta hezkuntza oso onak dira. Eta emakumeen janzkera gustatzen zait. Oso ongi janzten dira; elegante eta moderno. Gainera, nahi duzuna janzteko askatasun gehiago duzu. Han jendeak gehiago kritikatzeko zaitu: “Ikusi hori, gona motz horrekin, bi alaba izanda!!” esaten dute. Eta janaria oso ona da. Festak ere polittak dira: karnabalak... Politta da ospakizunetan hemengo dantzak dantzatzeko ikustea, bertako jantziekin jantzita ikusten dituzu ume guztiak... Nikaraguan jende guztiak ezin du jantzi tipikoa erosi eta oso gutxik dakite hango dantzak dantzatzeko, galtzen bezala ari da.

• Han ere badago beste kulturarik / hizkuntzarik?

A eta B: Bai, ingelesa. Eta miskitoa ere hitz egiten dute kostatik atlantikoan, hango indigenek (azal beltzagoa dutenek).

• Nahi zenukete euskara ikasi?

B: Ni aritu nintzen ikasten, baina umea jaio zenean... dena aldatu zen! Oso hizkuntza polita da, diferentea delako. Eta badut gogoan ikasteko eta

gauza gehiago egiteko, umea eskolan hasten denean.

A: Niri oso zaila egiten zait euskara, baina nahiko nuke ikasi. Kontua da denbora gutxirako nagoela hemen, “ave de paso” bat naiz... [bi seme-alaba ditu han]. Baina konturatzen zara hemengo jendeak poza hartzen duela guri euskarazko hitzen bat entzutean. Nikaraguako familiarekin hitz batzuk egiten ditugu: “Kaixo, egun on, aio...” eta beraiek ere erabiltzen dituzte! Esaten digute Nikaraguako jendeak, baita hemen egon ez denak ere, “Kaixo!” esaten duela [barrez]!

Hori izan zen hasieran txokatu zidana; nik banekien hemen beste hizkuntza bat hitz egiten zela, aurretik Donostian lan egin nuelako. Baina han ez nuen apenas entzuten, eta hemen! Hemen mundu guztiak hitz egiten du! Hemen deskubritu nuen euskara. Eta konturatzen zara hemen hitz egiten duten hizkuntza dela, barrutik ateratzen zaizuen, eta guk, ez dugunez ulertzen, jendearekin erlazionatzea kosta egiten zaigu eta apartatu egiten zara. Ez dakit, itxi egiten zara, blokeo bat bezala da.

B: Eguberrietan herriko umeak euskaraz kantari entzun nituen eta nire alabak, laster, herriko umeak bezala kantatuko duela imaginatzean, izugarriko emozioa sartu zitzaidan!

• Zer botatzen duzu faltan Nikaraguitik?

A: Eguberriak, hango Eguberriak botatzen ditut faltan. Han askoz ere festa gehiago egiten dugu.

B: Hango argia, eguzkia botatzen dut faltan. Hango janaria, jendea, lagunak... batzuetan, baita kaleko hautsa eta eltxoak ere! Hemen dena asfaltatua dago eta han lurra dago, lur asko. Ai Nikaragua Nikaraguita! Bihotza erdibitua dut: ni hango naiz eta nire hango familiaz eta lagunaz oroitzen naiz. Ez dut hemengo lagunik... Eta, aldi berean, hemen sortu dut familia eta nire senarra eta nire alaba hemengoak dira. Hemen bizitzera ohitu nahi dut.

Saioaren abenturak eta kalenturak Tailandia eta Laos-en barna

Tailandia... hainbeste oroitzapen dotozkit burura: itsaso zabalean galdutako irlak, hondartzak, masajeak, jende budista, monjez beteriko monasterioak, antzinako tenpluak, tribuak, mendiak, gaueko merkatuak... paradisia aurkitu nuen bertan. 66 miloi biztanle dituen estatu hau, 5 lurraldez inguratuta dago: Birmania, Laos, Vietnam, Cambodia eta Malasia. 1.770 km ditu iparraldetik hegoaldera eta 805 ekialdetik mendebaldera; 514.100 km² guztira. Bangkok hiriburua erdian dago kokatuta. Iparraldean mendia, tribuak, arroz ez beteriko zelaia eta opioaren produktioa dira nagusi; hegoaldea, aldiz, hondartza eta irla paradisiakoz beteta dago. Monarkia da nagusi eta erregerreginek dute arlo guztietan azken hitza; inork ez du beraietaz gaizki hitz egiten.

Ohikoa den moduan, Bangkok hasi nuen nire bidaia. Bilbo-Londres-Dubai- Bangkok, lau hegaldi hartu behar izan nituen bertara iristeko. Zorramena da nagusi 12 miloi biztanle dituen hiri honetan. Trafiko ikaragarria dago, poluzioa oraindik ere gehia-

go eta ez dago zebrabiderik lau eta bost karrileko kaleak gurutzatzeko kotxeak banaka banaka gelditu behar dituzularik. 24 orduz gelditzen ez den hiri honek bi gune nagusi ditu: parte zaharra (historikoa) eta berria. Parte zaharrean nengoen ni pentsio batean, motxilero gehienak bezala. Bertan kokatzen dira tenplu eta monasterio nahiz Budaren monumentu nagusiak. TUK TUKean (3 gurpileko motozikletetan) eta itsasontziz mugitzen nintzen bertan. Denda oso txikiak, merkatuak kaleetan, etxe oso zaharrak egoera prekarioan eta pobrezia ziren nagusi. Ezeren ikusirik ez alde berriko 7 pisuko zentro komertzialekin, non edozein markaren kopia faltsua aurki dezakezu prezio oso eko-





sajeak hartzeaz gain, toki historiko ugari bisitatu nituen hirian: palazioak, tenpluak eta monasterioak diragune garrantzitsuenak; dena Budismoarekin lotuta dago, izan ere, gizartean oso presente baitago erlijioa. Ia mutil gehienek bizitzako momentu bat pasatzen dute monasterio batean meditatzen eta Budarekin kontaktuan jartzen. Monasterioetan monje ugariarekin elkarriketatzeko aukera izan nuen. Esperientzia paregabea!! Beraien bizitza nola den kontatzeaz gain, beraien ideiak transmititzeko a ze gaitasuna dutena! “Strong mind strong body” (Burua gogor, gorputza ere bai!) da beraien lema. Europatik jende ugari joaten da Tailandiara denboraldi bat monjekin biziz meditatzeri; 3, 4 eta 5 hilabete ere pasatzen dituzte askotan. Edozeinentzako dago irekita aukera hau eta eraberritua ateratzen zarela diote.

nomikoetan (arropa, elektronika, koloniak...). Parte berri honetan dena modernizatu dago, pantaila erraldoiak daude publizitaterako eta Skylinez mugitzen nintzen bertan (metro gisako tren baina airez ibiltzen dena). A ze kontrastea dagoena bi aldeen artean!!!

Bangkoken hartu nuen nire lehenengo masaje tailandiarra, eta Pad Thaia bezala (arrozko fideoak oilaskoarekin eta soja eta limoi puskekin (hango janari tipikoa), ez zen falta izan nire eguneroko menuan. 5 euroren truke munduko esku hoberenek gorputzeko neke guztia kentzen zidaten. Masaje berezi bat da “Massage with happy end” (masaje con final feliz), probatu beharrekoa. Ma-

Tenplu bat bisitatzeko ari nintzen egun hauetako batean, hor entzuten dut bapatean: Saioa, Saioa!!! Ai ama, a ze kasualitatea, zein izango eta Kutzako lankide bat, Saioa izenekoa (nire tokaia)! Haraino joanda ere ezin lanaz eta lankideez ahaztu!

“Barrio Txino”-a ere auzo kuriosoa da Bangkok: txinoz gainpopulatutako auzoa, kale estuetan pasatzeko tokirik ere ez nuen. Denda oso txikietan ikaragarriko gauza pila saltzen dituzte, oso merke. Erosketa denbez gain ezer gutxi dago bertan. Barrio Txinoz gain, erosketak egin nahi izanez gero, night market (gaueko merkatu) ugari daude auzo guztietan eta lehen esan bezala 7 pisuko zentro komertzialak ere bai. Izan ere, THE SHOPPING PARADISE da Bangkok, denetik aurki dezakezu bertan oso merke. Opariak erosten ari nintzen egun batean berriro ere hor entzuten dut: Saioa!! Pentsatu nuen: ez da ba oraingoan nire jefea izango? Ke- ba, zein izango eta Ixkibin lana egiten duen David Catalana, hora poza nerea! Harrituta nago nola ezagutu ninduen neramatzan pintakin; eguzkitako betaurreko handiak, zapela bat hango beroa aguantatzeko (klima tro-



pikala, 35 gradu %80ko hezetasunarekin), galtza gorriak niki arrosarekin konjuntatuta... Nahiko xeble egia esan.

Gau giroa ere ikaragarria da estatu guztian: Bangkok, adibidez, 3 "Barrio Rojo" daude eta kontuz ibili behar da droga eta emakumeen trafikoa handia baitago. Prostituzioa ere latza da. Bertako show famatuena PING PONG Show-a da. Hainbat emakume ping pong-ean jokatzen ikusi daitezke biluzik eta hanka tartearrekin pilota alde batera eta bestera botatzen dute.

Aipatzekoa da Tailandiako gau munduan trabestiek duten garrantzia. Izan ere, Tailandian 3 sexu genero daude onartuta: emakumea, gizonetza eta 3. sexua, dena barneratzen duena. Batzuk gizonak dira, ile luzea utzi, makilatu eta neskaz jantzita bizitza normala egiten dutenak. Beste batzuk, berriz, titiak operatuta dituzte eta beheko tramankulua mantentzen dute. Beste batzuk guztiz operatu eta neska bihurtzen dira. Gizartean guztiz onarturik dago eta kaletik doazela jendeak ez die begiratu ere egiten, ohikoa baita.

Bangkok ikusi ostean, trena hartu eta iparralderantz jo nuen. Iparraldean dena berde-berdea da, mendia, eta arroza eta opioaren produkzioa dira nagusi. Hainbat tribu ikusteko aukera izan nuen bertan, besteak beste, "Mujeres jirafa" tribua. Hauek lepoan anilak daramatzate lehoien erasoaz babesteko; lepoa guztiz luzatua dute lepoko eraztun horien ondorioz. Ikustean inpresioa egiten du. Ez dauka preziorik beraiekin hitz egiteak, beraien ohiturei buruz. Ikaragarria!

Hainbat bidaiia ere antolatu nituen Iparraldean, besteak beste rafting egin nuen eta nola ez elefantez bidaiia bat ere egin nuen. Japoniar neska bat ezagutu nuen hauetako batean, Saori (ni Saioa), nere antzekoa eta ez ginen parrezka ixiltzen. Elefantea konpartitu genuen gure bidaiian: Ampon zuen izena, 2 tona pisatzen zituen, 26 urte zituen (gaztea kontuan hartuta 100 urte arte ere bizitzen direla) eta 200

kilo platano jaten zituen egunero. Eta nola ez hainbeste janda kaka egin eta kaka egin gelditu gabe. Bidailagun onak egin ginen Saori eta ni, eta oraindik ere asko idazten diogu elkarri.

Bidaiia hauek egin ostean, Laoserantz jo nuen. Lotan nengoen pentsioan bi irlandar ezagutu eta beraiekin gurutzatu nuen muga. Han zer pasako eta argazki bat behar zutela nire Visadoa egiteko. Nik ez nuenez, Kotxeko karnetari kentzea bururatu zitzaidan eta Goizuetara itzultzean jarri nion argazki berria kolarekin itsatsita. Kontrolen baten harrapatzen banaute...

Ba Laosen sartu eta egunak pasa nituen bi irlandar hauekin itsasontzi Laos guztia gurutzatzen. Laos da Tailandia baina orain dela 40 urte, dena oso mantso doa, denbora gelditu dela dirudi bertan. Mekong errekatik joaten dira itsasontziak, izan ere, lurreko azpiegitura oso txarra da eta ondorioz, autobusetan mugitzea oso zaila da. Mekong erreka 4.880 km luze ditu eta 14 km-ko zabalera hartzen du puntu zabalenean. Erreka hau oihanean zehar doa eta ikaragarritzko paisaietan barrena zihoan barkua: elefanteak, bufalo zuriak, jendea oihan erdian (ez dakit nola bizi diren han) ... ikusten dituzu bidaiian zehar. Eta nola ez, egunsentiak eta iluntzeak ez dute preziorik!! Jende ugari ezagutu nuen 5 egun horietan. Beldurra pasa ere bai, izan ere, itsasontziak gainezka joaten ziren, jende pila batekin eta denak mozkorrak gainera! Aleman bat uretara erori ere





egin zen zeraman zamarekin. Jendea barkuan jenbea jotzen, kantatzen... ikus zitekeen eta ikaragarriko fiestak egin genituen.

Laosen guztia zeharkatu ostean berriro Tailandiara itzuli nintzen autobusez. Hemen ere gauza xelebrea pasatu zitzaidan niri: eserleku batean ni, eta ondoren ez zitzaidan ba eseri 200 kiloko gizon bat! Hora apuroa nerea, jaten pasa zuen denbora guztia eta lo hartzen zuenean zorronkaka hasten zen eta ni dena zanpatua. Gainera telebistan erabat musika tailandiarreko karaokeak jartzen zituzten! Ah! Autobusak 5 minuturo geratzen dira gauzak kargatu eta deskargatzeko eta nik beldur ederra bai nere maleta faltatuko ote zen!

Esan bezala Tailandiara itzuli nintzen, baina oraingoan hegoaldera, hondartza eta irletan deskantsatzen. Hainbat txango egin nituen irlak ezagutzera eta nola ez, Snorkeling eta buzero egitera. Munduko koral eta arrainik politenak daude bertan. Harrigarria da zer flora aberatsa dagoen. Haik koloreak eta haik arraiak! Ni hantxe ibiltzen nintzen uretik atera gabe. Irla guztiak ere ezberdinak dira: batzuek ura berde berdea dute, bete batzuek urdina, beste batzuk harkaitzaz beteta daude eskalatzeko prestatuta daudelarik, beste batzuetan zuhaitzak, kokoteroak eta tximuak aurki ditzakezu... Denak ezberdinak dira! Nik uste dut 14 bat irla bisitatu nituela (milaka daude). Lantxatan mugitzen ginen batetik bestera.

Hegoaldeko bidaiia amaitzeko Phuket famatua bisitatu nuen eta baita ederki damutu ere. Egun bat

pasa eta berehala nintzen Bangkokera. Ikaragarriko prostituzioa dago bertan, ume oso gazteak 60 urteko gizonekin ikus ditzakezu. Gainera dena turistaz betea dago, esaten dute Españako Benidorm eta Mallorca dela hura, eta gau giroa besterik ez dago. 220.000 hildako utzi zituen 2004ko tsunami famatua paraje hauetan izan zen eta gaur egun dena kartelez eta seinalez beteta dago tsunami baten kasuan zer egin instrukzioak emanaz. Dorre ugari ere badaude tsunamiren bat badatorren detektatzeko.

Nire bidaiia amaitzeko Bangkok nire nituen azken egunak. Masajez asetzeko aprobeztatu nuen eta nola ez erosketak egiteko. Thai Boxing saio bat ikustera ere joan nahi nuen baina ezinezkoa izan zen. Hango kirol tipikoa da. Egia esan jendeak orokorrean kirol asko egiten du. Goizeko 6etan edozein parke bisitatu baduzu jende lepo aurkituko duzu: 20 urtetik hasi eta 90 urte artekoak, denak korrika, arte martzialak praktikatzen eta aire libreko gimnasioetan giharrak indartzen. Izan ere parkeetan zehar makina ugari daude muskuloak garatzeko. Harrigarria da hau. Eta nola ez, jende guztia argala da, arroza jan eta kirola egin.

Jende ugari eta oso atsegina ezagutu dut bidaiari zehar: bai bidaiariak eta baita bertako jendea ere. Bertakoek ingeles maila oso baxua dute eta zerbait ez badute ulertzen, Sabadie (todo va bien!) esan eta irribarre batekin amaitzen dute elkarrizketa. Motxilarien hostaletan lo egiten nuenez bidaiari asko ere ezagutu ditut, batzuekin egun bat pasatzen nuen eta beste batzuekin 3-4 ere bai.

Beno Goizutarrak, ongi izan eta datorren urten izango duzue nire berri. Ea zer bidaiia egiten duzan: India, Nepal, Malasia, Kenia, Tanzania... Aix, hau komeria aukeraketa egiteko. Esakerak dioen bezela: aukera dunak nekea burun!!!

Txaioa Tabelna

(tailandesez hola deitzen zidaten, jejejeje)

HITZOKEI

“Egunon-egunoff: goizean eta gauean agurtzeko modua”

“Taloween: urriaren 31 gauean egiten den talo jate jaia.”

“Katxondo: katxia edan ondorengo aldartea.”

Hizkuntzarekin eta hitzarekin jostatzea aspaldiko kontua da, bertsolaritza bera baino askozaz ere zaharagoa. Ziur asko hizkuntzak sortu orduko hasiko ziren hiztunak haiekin eta haien hitzekin jostatzen.

Jakina, denborak aurrera egin ahala, hitzekin jostatzeko modu horiek eta teknikak aldatuz joanen ziren, baita gaiak, estiloa eta teknika ere. Baina funtsa, seguruenik, antzekoa zen orduan eta orain: hizkuntzarekin gozatzea, entretenitzea, umorea edo kritika egitea...

Atal honetan, “hiztegi” berezi samar baten berri eman nahi dizuegu. Izan ere, dibertigarria eta entretenigarria izateaz gain, parte hartzeko aukera ere ematen du. Hitzak asmatzea edo sortzea gustuko baldin baduzu, beraz, zure sormenari bidea emateko aitzakia eta aukera ederra daukazu hemen.

Artikulutxo honetan hiztegi horretatik jasotako zenbait hitz ekarriko dizkizuegu hona, dasta ditzazuen. Gustuko duzula eta gehixeago jakin nahi duzula? [kei.tximinia.net helbidean dituzu denak. Merez du bisitatxoak.](http://hitzo-</p>
</div>
<div data-bbox=)

Honatx, esan bezala, eta gehiago luzatu gabe, Hitzokei-n ikus ditzakezun horietako batzuk, hitzez hitz jasoak:

Ajenda: ajea zein egunetan izanen dugun apuntatzeko egutegi-liburua.

Alupezia: pottorsoiltasuna.

Amonkomuna: erditu ondoren emakumeek erabiltzen duten konketa.

Andohain: ekitaldiak beti muxutruk egiten diren herria.

Antizorgailua: hipotekekin amaituko duen tresna.

Antzuola: olatu honek bustitzen bazaitu, ez duzu seme-alabarik izango sekulan.

Barrabila: tabernan potrojorran aritzen trebea.

Basura: basoko errekek dakarrena.

Bideatxurria: mozkortutakoan etxera iristeko egiten den bide bihurtutakoa.

Demagogo: apusturako irrika duen hizlari tranposoa.

Egunon-egunoff: goizean eta gauean agurtzeko modua.

Ekaina: sarean zerbeza hartzeko sasoia.

Ertxantxa: polizia naiz. Ezeeeetz.

Eposta: txirrindulari batek nahita droga-tu dela onartzen duen posta elektronikoa.

Euribor: Euskal Herriko berdetasun tasa neurtu (eta hobetzeko) erabiltzen den indize hezea.

Eurotu: sos batzuegatik burua galdu.



Antzuola



Basura

Euskizofrenia: bi Euskal Herri esistitzeak, hango biztanleengan sortzen duen gaixotasuna.

Ekzuntza: desobedientziarako edukazioa.

Etzandarte: gudan bandera darman soldadu gizajoa. Noiz arte?

Faxista: faxista fax-ak bidaltzearen poderioz fanatiko bihurtzen dena.

Gezurtero: urtebetetze egunero, adina faltsutzen duena.

Gi-zendu: kiloak hartu hil arte.

Grinatsuki: Japoniar marrazki bizidunetako heavya.

Halaba!: semea espero zenean alaba jaio dela adierazteko erabiltzen den interjekzioa.

Haraba: kasualitatez bezala aurkitutako Euskal Herriko lurraldea.

Hitsaldi: berbaldi goibel eta etsigarria.

Internauta: Etxetik ateratzen ez den internet zalea.

Islandia: Inoiz ikusitako irlarik haundiena.

Jerché: Gebararen sudadera.

Katxarro: "I'm drunk and proud... katxiz horditu ta harro nago.

Katxondo: katxia edan ondorengo aldartea.

Lisuna: derrigorrez "haragiaz" ordaindu beharreko isuna.

Madarikatu: maldizio baten bidez pertsona bat madari bihurtu.

Makurtu: izozgailuan sartzeko beharra duen hanburgesa.

Marrubiak: oihu ikaragarriak botatzen dituzten emakume ilehoriak.

Mudantza: behien koreografia aldakorra.

Orgasmo: gogo galdi batean jarri eta plazerez ixuritzea.

Ospatu: Mozkortu eta pagatu gabe alde egin.

Patxiloketa: Lehendakari berriaren aginduz eskuburdinak jartzen dizkizutenean.

Pazientzia: muxukalogia.

Sormen: gizonezko monja.



Gi-zendu



Patxiloketa

Sutsuki: Kartsu aritzen den japoniar marrazki bizidunetako pertsonaia.

Tripi-tixa: 1. Akordeoi itxurako pilula. 2. Dantza folkloriko aluzinogenoa.

Txosna: zapatilek kalimotxo putzuetan egiten duten soinuaren onomatopeia.

Ustela: Ipar Amerikako Estatu Batuetako bandera.

Zakhila: viagra hartzeko garaia.

Taloween: urriaren 31 gauean egiten den talo jate jaia.

Txotxeatu: Kupeletik kupelera sagardoa probatzen aritzea.

Zaitxaket: jaka jantzita itxaron ahal zaitut.



Taloween



14

irudietan

GOIZUETA

JOSE JAVIER ETXEBERRIAREN BEGIETAN

Goizueta begiratzeko eta ikusteko modu asko egonen da, ziur asko. Nork bere begiez ikusten du herria, norberaren bizipenen bitartez. Atal honetan, argazkien bidez, herritarrok gure herria nola ikusten dugun erakutsi nahi dugu. Oraingo honetan Jose Javier Etxeberriari eskatu diogu bere Goizueta erakuts diezagun, jarraian dituzuen argazkiak lagun.

HARRESPILETAN aspaldikoen presentzia bertan, gure aurrean, azaltzen da garaile. Lasai daude arbasoak maite zituzten parajeetan. Zirarra eta errespetoa sortzen du beraiekin topo egiteak.

UMORE ONA elkarteak. Lagun arteko otordu eta herriko aktibitate askoren gunea. Nahiz eta kolesterola eta pisua igo bestelako zerbitzu onak egiten ditu animo eta gorputzarentzat.



BETIZUAK, ardiak, erleak, haziak, landareak... Naturak emandako bitxi hauek hauenganako ahaleginak egiten dituzten artzain eta zaindariesi esker mantentzen dira gure artean. Seguru aski gehienok ez ditugu behar adina estimatzen.



GANBARAK, baserriko neguko biltegiak. Ganbarako itzalean, belar zamatuen usain gozoan eta artaburuaren kolore horian sentitzen da etxeko babesa eta segurtasuna.




IBILALDIAK auzoetara, mendira, trabesiak inguruko herrietara bidak ezagutuz eta naturan murgilduz. Mila aukera begi, belarri eta zentzuentzako.



JOARRE-EGILEA, BELAKO. Itzal handiko ofizio eta lantegia arotzarena. Burni oletako eta sutegiko langileak indartsuak eta azkarrak izan dira beti. Iraun dezatela artisau lan honetan urte askoz.

AITON-AMONENTZAT

herri egokia da Goizueta. Ttiki, sasoiko eta zaharren arteko laguntza giroari eta armonia ederriari eutsi behar diogu goizutarrak.



FOTOGRAFIA ETA HISTORIA gus-toko duenak badu non ibili Goizuetan. Gai, gauza eta toki asko ditugu oraindik aztertzeko eta azaltzeko.





Umore Ona Peñaren

50. urteurrena (1959-2009)

Eztabaida luzetan urtebete pasatu ondoren, Goizueta gazte koadrila batek ongi pasatu eta festa-giroa herrian gehitzeko asmoarekin 1960an sortu zuten "Peña Umore Ona" lehenengo aldiz eta modu formalean, hau da: goizean Dianak joaz, kalez-kaleko irteerekin, errondak hartuz, talde bezala nabarmentzen zuten jantzia eramanez, azken eguneko bazkaria eginez e.a.

Urte bat lehenago, 1959an, koadrila honek erabaki zuen hilean behin 0,060 euro (10 Pta.) botatzen hastea sortuko ziren gastuei aurre egiteko.

Bultzatzaileak:

Idea defendatu eta sortu arte asko borrokatu zuena Pedro M^a Aizkorbe

izan omen zen, Iruñeko Peñen antzeko zerbait nahi baitzuen herrirako eta baita lortu ere.

Lehenengo urteko partaideak 16 lagun izan ziren: Elizegi anaiak, Joxanton, Luis, Agustín eta Angel; Lorentxo Apezetxea; Juan M^a Zabaleta; Serapio Salaberria; Javier Tomasena; José Luis Espila; Jesus Itxaso; Agustín Perez; Tino; eta Hildakoak; Paquillo, José M^a Loiarte, Miguel Etxegia eta Pedro M^a Aizkorbe. Lehenengo Presidentea Jesus Itxaso "Monteroa" izan zen.

Herriko neskak ere laguntzaile dituzte eta naiz Peñako partaide ez izan eguneko momentu askotan ibiltzen ziren beraiekin, baita diruz laguntzen ere.

Blusa berdea zen festetako ezaugarri garrantzitsua eta pixkanaka

pixkanaka "PEÑA" indartzen zihoan; kontrakoak ere bazituen, baina gazte gehienek ilusioa zen blusa jantzi bezperan eta txarangarekin batera kalez-kale egun guztietan ibiltzera.

Programa:

Txaranga hasiera eta bukaera Gan-yegin izaten zuen. Bertako lau anaiekin batera Peñako batzuk lo ere bertan egiten zuten eta Kandida zenak zaintzen zituen gazteak, beraien arropak garbituz, lo zegoena dianarako esnatuz, kafea eskainiz etab.

"Diana 7etan izaten zen eta gero go-saldu egiten zen. Ondoren Txaranga-ekin pilota partidua ikustera joan eta ondoren bazkaltzen hasi arte kalejira. 17:30ean zezanak hasi baino lehen

herriari bueltaxka bat ematen zitzaion berriro ere musikak animatuz eta zezenak bukatu ondoren gauza bera. Plazako musika (talderen bat) bukatu eta afaldu aurretik beste kalejira bat eta gaueko dantzaldia bukatuta azkeneko buelta ematen zitzaion herriari. Irteera guztietan ateratzen ziren errondak. Gaupasarik ez zen egiten eta goizaldeko lauak aldera bukatzen zen festa; 7etan berriro diana jotzen zuten; horrela egunero”.

Gazte koadrila hau guztiz espontaneo eta konpromiso gabekoa zen, eta gauza batzuk erabaki behar zirenez lehenakari eta diruzaina hasieratik izendatu ziren. Hauen lana, batik bat, festak iritsi aurretik atera nahi zuen guztiari deialdia egin, programa aurkeztu, eztabaidatu eta erabakiak hartzeko gidaritzara eramatea izaten zen. Hartutako kargua norberak erabakitzen zuen noiz utzi, eta hau horrela izan zen lehenengo urteetan, gero komisio bat izendatu zen eta erabakiak berak hartzen zituen.

Sumatzen da garai hartako jarrerarengatik bazutela herriarekiko ikuspegi xume eta berexi diziplinatu bat, desfile moduan egiten ziren irteerak, ordutan puntual, pankartarekin beti eta egunero jantzi osoarekin denak (horrela kolore politta ematen zion txarangak herriari).

Aipatzekoa da edonor sartu zitekeela Peñan eta horrela badaude kanpotarrak 2010ean zilarrezko ezteiak beteko dituztenak; zalantzarik gabe, Herriarekiko kidesasun nabarmena azaldu digute 25 urtez jarraian.

50 urtetan huts egin gabe atera den bakarra Joxeanton Elizegi da.

Baita ere ezin ahaztu Peñarekin lotura handia izan zutenak eta falta direnak, batzuk sortzaileak eta besteak



Obsequio de fotos Peñasa a la simpatía Peñan Honoración de Goizusta





partaideak; denak ezin aipatu, baino bat aipatzekotan berexia zelako eta egoera bizitzen zuelako ASTEASU zena zen. 1983an hil zen eta ordu arte beti prest egoten zen irteera guzietan, lehenbizi bonboarekin eta gero ataballarekin.

Pasarteak:

Urte hauetan gertatutako hainbat pasarte gogoratuko ditugu:

Eztabaidak sortzen ziren musikoak aukeratzeko garaian. Dianak egunero jotzeko aldekoak eta kontrakoak ere bazeuden, Udaletxearekin ere pilota partidua ikusteko jaso behar ziren sarrerei buruz negoziatu eta istiluak sortzen ziren... Urte baten Peñakoek behar zituzten sarrerak lortzeko zail-

tasunak zeuden eta blusak erantzi eta Peña erretiratzeko amenazoa egin zieten Udalekoei eta holaxe lortu izan ziren behar ziren sarrerak.

Garai hartako kontuak dira eta laugarren eguneko bazkarira Kabua eta Alkatea gonbidatzen ziren.

Begirune handiz jokutzen zen eta errondak tabernak txandatz hartzen ziren, laugarren eguneko bazkaria ere leku diferentetan egiten zen, Klau-dion etxean, Loidinen, Juanan etxean, Lujanbio ostatuan.

Erreka handian sartzea ere urte batzuen burura hasi zen. Herriko buelta egin eta azkeneko erronda Klau-dion etxeko tabernan izaten zen eta oraingo moduan orduan ere blusak elkarri lotuta ibiltzen ziren. Urte hartan, Luis Elizegi buruan zela, Klau-

dion etxeko leihotik kanpora atera eta Fuentenen atzeko aldean lokatza handia omen zegoen, eta denak handik pasa beharrak omen ziren nahitaez. Garbitzeko erreka handian sartu behar izan zuten. Urte hartatik aurrera urtero sartzen da Peña Errekara.

Gazte batzuen gogokeria izan zen Zurrakapotearena: 1970an koadrila baten ideia izan zen Zurrakapotea prestatzea, edari freskagarri eta goxo batez disfrutatzeko. Olajaundieneako sotoan izan zuen bere hasiera. Plaza-



**Festetako egunak
Zoragarrienak
Ongi pasatzeko
Jarrita daudenak**

**Sortzailei eskerrak
Iraun duelako
Berroetitahamar urte
Denon onerako**

**Zenbat diskusio
Zenbat ilusio
Zenbat amodio
Peñak eman dio
Gazte zahar ta heldu
Kanpoko ta Herrikoei
Parte hartu duten
Jende guztiei**



Urte batzuk pasa ondoren Lubineko bajarara, gero oraingo gaztetxera, orduan Tifanitxo izeneko tabernara, eta azkenik gaurko Ikastolako tabernara pasatu zen.

Gaua luze joaten zen eta berehala pentsatu zen diru iturri inportantea izan zitekeela Peñako gastuei aurre egiteko, edariarekin batera oilaskoa ere saltzera, eta izugarritzko arrakasta izan zuen. Honela, Peñaren gastuei aurre egiteko sarrerarik handienak hemendik ateratzen hasi ziren.

Zurrakapote: ardoa fruta askorekin batera nahastuz azukrea eta kanela ere gehitu behar zaizkio. 24 orduz geldirik utzi behar da edan aurretik (batzuetan likoreren bat edo gehiago ere botatzen zaio).

Kontuak kontu, ikusi daiteke urte hauetan gauza berri franko sortu izan zirela herriko ekitaldietan, eta, Umore-Ona Peñari esker, Goizuetako festa eta urtean zehar egiten ziren dantzaldiek eta emankizunek jendea erakartzen zuten giro ona sortuz eta herri atsegina eta umoretsua eskainiz.



ko musika bukatu ondoren herriko tabernak itxi egiten ziren eta hantxe biltzen zen jendea goizaldera arte. Urte hauetan ez zegoen gau pasarik, ez Elkarterik, ez Gaztetxerik, eta huraxe asmatu zuten: gaurko "litronaren" an-

tzeko zerbaite. Arrakasta handia hartzen hasi zelako batetik, plazako musika bukatu ondoren tabernak itxi eta jendea pilatzen zelako, bizilagunei loa galaraziz bestetik, eta leku faltagatik baita ere, Zibolan egitea erabaki zen.





2009ko Azaro kulturala Asetu ederra!

Herritar guztien neurriko ekitaldiak antolatu dituzte eta herria erabat murgildu da kultur ekintzetan.


Badira urte mordoska herriko kultur taldeak azaro kulturala antolatzen duela. 2009koa ere, indartsu joan zen, hainbat ekitaldi egin baitziren azaro guztian zehar.

Arte erakusketa labaderoan

Urriaren bukaera eta azaro hasieran, Hernaniko Dobera euskara elkartearen eskutik, arte erakusketa egon zen herriko labaderoan. Ikusmin handia sortu zuen herritarrengan eta hainbat eta hainbat izan ziren labaderoan hurbildu zirenak artelanak ikustera.

Xalto eguna eskolan

Urtero bezala, San Andres egunaren inguruan ikasleek "Xalto eguna" ospatu zuten., "Galtzagorrirei to Inaxito!" pertsonai mitologikoei buruzko antzerkia ikusi ahal izan zuten goizean. Ondoren bertso antzerkia egin zuten bertso eskolako ikasle gazteek. Arratsaldean bertso eskolako ikasleek emanaldia eta bertso paper lehiaketako sari banaketa izan ziren.





Kuko, Truko eta Bolenwaider eta Perez sagutxo

Azaroaren 7an, udal-
letxeko ganbaran pailazo
hauen bisita izan ge-
nuen. Jendea oso gustora
atera zen pailazoen ema-
nalditik. Beste egun ba-
tean 'Perez sagutxo 2'
pelikula jarri zuten uda-
letxeko ganbaran eta 60
lagun inguru elkartu zi-
ren filma ikustera.



Amabirjinetan 'Umore ona' peñaren 50. urteurrena ospatu bazen, azaroan 'Umore Ona' elkartearen 25. urteurreneko ospakizunek hartu zuten erreleboa. Izan ere, bazuen zer ospatua, 25 urte hauetan makina bat ekintza egin baitira elkarte honen izenean. Izen bera daramaten herriko pilota eskolak, dantzari taldeak, abesbatzak eta areto futboleko taldeen emanaldiek osatu zuten zilarrezko urtebetetze eguna.

25. urteurrena

Azaroaren 21ean, talde guzti hauek elkartu ziren Umore Onaren urteurren festa ospatzeko. Partaide guztiak argazkia atera ondoren, pilota eskolako pilotarien arteko partidua izan ziren, ondoren dantzariak egin zuten emanaldia eta hunkigarria izan zen abesbatzako kideen ahotsaren erritmora dantzatutako aurrekoa. Azkenik, eguneko ekitaldi desiratuenetakoa iritsi zen: Umore Onako lehengo taldekideek, horietako batzuk 13 urtean baloirik ukitu gabeak, gaur egungo taldearen aurkako partidua jokatu zuten. Ia taldekide gehienak elkartu ziren egun honetan. 2004tik espetsxean dagoen Iñigo Elizegiren askatasuna eskatzeko argazkia egin ondoren, bera ere futbito taldeko jokalaria baitzen, partiduari ekin zioten. Tentsioa handia izan zen, eta beteranoenek sa-

Umore ona elkarte

soian jarraitzen dutela erakutsi bazuten ere, gazteenak izan ziren garaile 5-3 emaitzarekin. Jaiari bukaera emateko, herriko trikitilariak kalejira egin ondoren, egun handi honetako partaide guztiak Umore Ona elkartearen afaldu zuten; mus partida eta kantuek afalondoa luzatu zuten. Umore ona nagusi elkartearen urtebetetzean!



Aizkora eta txinga frogak

Azaroaren 22an Goiko frontoian zegoen hitzordua, euskal herriko 3. mailako aizkolari txapelketako eta euskal herriko emakumezkoen txinga txapelketako finala ospatzen zela eta. 33 aizkolaritik 6k zuten lortua Goizuetako finalerako txartela, eta azkenean Arkaitz Olano, 19 urteko leitzarrak irabazi zuen txapela, oso lehia estuan. Lehenbiziko 3 sailkatuek 2. mailan jokatuko dute hurrengo urtean. Emakumezkoen txinga txapelketan Esther Iriarte narbartearrak lortu zuen txapela, bigarrenari 17 plaza atera eta lehiaketako marka berria ezarrita. Txapelketa leporaino betetako goiko frontoian jokatu zen, 400 ikusleren begiradapean.



Feri eguna

Artisau eta Ganadu feria eguna seigarren ediziora iritsi zen 2009an. Goiz osoan artisau postuak, nekazal produktuak eta azinda feria izan ziren herriko plazan. Goiz goizetik iratze meta ederra egon zen plaza inguruan, eta herriko jubilatuek txukun asko erakutsi zuten garai batean nola zaharberritzen ziren artilezko koltxoiak. Txinga apustu herrikoian parte hartu zuen ausart batek baino gehiagok, eta feriarri amaiera emandakoan 500 lagun inguru bildu ziren Goiko frontoian bazkaltzeko. Arratsaldean musikaz alaiturik egon zen, hasiera batean frontoian bertan eta ondoren Urrutineko atarian. Beste estilo bateko musikaz gozatu nahi izan zutenek Gaztetxean izan zuten aukera The Zepo eta Sindrome de Parkerren eskutik. Urtero bezala, benetan arrakastatsua joan zen feri eguna.




ezetz asmatu



ARGAZKI ZAHARRAK

Batzuk oso zaharrak, besteak ez hainbeste, baina argazki hauek guztiak egin zirenetik urte batzuk pasa dira. Bertan agertzen den jendea ere aldatu da, urteak ez baitira alferrik pasatzen. Ezagutzen al dituzu, hala ere? Tira, zorroztu begia, eta ea ezagutzen dituzun.



EZETZ ASMATU

Zein ote da argazkiko pertsonaia? Ez duzula asmatzen? Saia zaitetz berri, ez baita hain zaila.





Txinoko jaiak

Jada sei urte igaro dira Goizuetako Gazte Asanbladako kideok, Txinoko Jaiak berreskuratu genituenetik eta asteburu hau, goizuetarron egutegiko esanguratsuenetako bat dugula esan genezake. 2004. urtean berreskuratu genituen jai hauek, izan ere, ospakizun hau ez da berria, garai batean ere ospatzen baitzituzten.

Txinoko Jaiak berreskuratzearen ideia Gazte Asanbladako kide batzuei bururatu zitzaigun eta ideia ona zela ikusirik hainbat bileren ondoren G.A.-koek helburua betetzea erabaki genuen.

Hori bai, argi utzi genuen hasieratik jai hauen izaera JAI HERRIKOI ETA PARTEHARTZAILEA dela. Bagenekien hau guztia antolatzeak aurre lanketa, ardura eta konpromiso handia eskatzen zuela, baina gure gogo eta grinarekin nahiz hainbat herritarren laguntzarekin 2004an Txinoko Jaiak ospatzea lortu genuen.

Hasiera batean, jaiak ez zeukan arrakasta handirik, baina urtetik urtera egin dugun lana txalogarria izan da. Izan ere, sei urteren buruan maiztaren lehenengo asteburua egutegi-

ko garrantzitsuenetako bat bihurtu zaigu.

Nork pentsatuko zuen orain dela sei urte, gaur egun horrelako arrakasta izango zutela? Eta 800 biztanleko herri txiki honetan, 300 lagun inguru elkartuko ginela ospatzeko? Seguruenik gutxi batzuk. Baina, G.A.-ko kideok gure helburuak betetzeko gai garela erakutsi dugu.

Aipatzekoa da, urte hauetan zehar, hainbat ekintza, ikuskizun, kontzertu... antolatu ditugula, haur, gazte nahiz helduentzat. Gainera punta



puntako kirolariak etorri zaizkigu (Joseba Otaegi eta Jon Rekondo –aizkolariak-, Aimar Irigoien –harri jasotzailea-...). Herri kirolak ere egin ditugu herritarren partehartzearekin, zubiak banatzen dituen bi aldekoen arteko desafia, ahari apustuak, herrien arteko apustuak, Xiba, etab. Honetaz gain, hainbat talde ezagun izan ditugu bertan; “Zpeiz Mukaki” eta Iruñeko “Break Dance” dantza taldeak, “Deus” Goizuetako gazteen musika taldea, “Esne Beltza” musika talde oso ezaguna...

Maiatzaren lehenengo asteburu honek, herritarren interesa erakartzeaz gain, goizuetarrak ez garenongan ere sortu du interesa, ikusi besterik ez dago zenbat jende etortzen den inguruko herrietatik; Hernani, Leitza, Areso, Berastegi, Arantza, Lesaka, Oiarzun, Arano...

Nahiz eta asteburu hau antolatzearen ardura gazteok gure gain hartzen dugun, esan beharra dago, batetik Txino auzoko tabernarien eta bertako auzokideen laguntza ezinbestekoa izaten dela eta bestetik 300 lagun bazkaria

prestatzen eta zerbitzatzen laguntzen digutenean lana izugarria dela, beraz eskerrik asko hau guztia ondo ateratzea posible egiten duzuen guztiei!

Guk, gazteok, lanean tinko eta gogotsu jarraituko dugu gure ametsak eraikiz nahiz helburuak betez. Herritarrei ekintza desberdinak, irteerak, jaiak... antolatuz eta eskainiz!!

**GAZTETXEA MANTENTZEN
BADUGU ZUTIK,
HERRIA BIZIRIK!!!!**

*G.A.= *Gazte Asanblada*



IKASTEN

Ni Maren nauzue eta 20 urte ditut. Ikasketekin petral xamar nenbilen eta, gogoz kontra, gurasoak maisu-partikular bat behar nuela eta, Gaizka etortzen zen etxera pixkot laguntzera.

Lehenengo aldiz Gaizka etxera etorri zenean hain haserre nengoen, ez niola ez aurpegira begiratu, ezta literatur saioari arretarik jarri ere. Ahots lasaigarria zuen, hori bai, nere berrietan musika doinu gozoa bezala sartzen zen.

Asteak pasa ziren eta nire harridurarako, irrikaz egoten nintzen, astearte noiz iritsiko, bostetarako dena prest! Soineko polittena jantzi, ilea ongi orraztu...

Asteartero bezala, 5etan puntu-puntu Gaizka etorri zen eta beste egunetan ez bezala gurasoak ez zeuden etxean.

Atea ireki nuen eta han zegoen bera tiradun kamiseta batekin, beso indartsu haiek erakusten, tximeletak nabaritu nituen nire barruan.

Hasi ginen ikasten baina bero handiegia nuen ezer ikasteko eta atsedena hartzea erabaki genuen.

Gustora ari ginen hizketan baina, hitzak indarra galtzen zihozen, ni bere ezpainen mugimenduarekin hipnotizatua nengoen, bere bihotzaren soinua entzuten nuen eta ez bere ahotsa. Bat batean musukatzen hasi ginen, pasioz, indartsu. Gure mingainen borroka bortitza zen, eskuak ere berezko bizia zutela ziruditen, dena ukitu nahi nuen! Soinekoaren botoiak banaka-banaka soltatu zizkidan, titiak agerian utziaz, lepoa musukatu ondoren titiak miatzatu zizkidan, buelta eman zidan golpe batean eta bi eskuekin titiak hartu, ipur masailetan nabaritzen nuen zakil gogorra desio nuen, Gaizkaren plazerra sentitzen nuen eta nere alua bustitzen!

Bere behatzak klitoria zirikatu zuenean, plazerrik gozoena sumatu nuen. Gorputzeko atal guztietan nabaritu nuen gozamen. Gaizka etzanda jarri zen eta ni bere gainean, hartu nuen zakil gogor hura, kondoa jarri nion, eta nere alu bustian sartu nuen, hasi nintzen poliki-poliki mugitzen, gure arnasek erritmoa gidari nuela. Arnas estuka, erritmoa azkartzen ziholan, gora eta beheara zalduna banintz bezala.

Gaizka altxa eta nere gainean jarri zen, zakilarekin bultzada indartsuak ematen zizkidan, nere barrua urratzera zihola zirudien baina gustukoa nuen. Arnas estuka, airea falta nuen! Mugimendu haiekin eta Gaizkaren antsi ikaragarri harekin batera nere barruan hazia nola isuri zuen nabaritu nuen eta nere gorputzeko gihar guztiak nola kizkurtu ziren gozamen. Gure goxotasunean besarkatuta egon ginen momentu luze batez, gero isiltasunean jantzi ginen eta hurrengo astearte arte agurtu ginen.

Ez nuen gehiago Gaizkarekin horrelako arratsalderik pasa, baina gogoratzen dudanean momentu hura, tximeletak bueltatzen dira.



Xapo aldizkariko galdera

Zure ustez, zergatik deitzen diute goizutarrari "zapok"?



J.J. BAKERO

"Galdera ona. Ni puta idea. Beti ola aittu izan du."



ZARRA

"Garai baten kriston abilidadea zutelako larrutan."



ERROTA

"Erreka asko jaiotzen den lekua delako. Harri inak ibiltzen galako ta zapok bezela bueltatzen galako itxera."



EIDER LOYARTE

"Galdera earra da hori... saltarinak galako... Hitzegin e zapok bezela saltoka ta kontentu. Eurikin ta humedadekin ez ga atzera gelditzen, ordun ere kanpora."



LUIS ZUGARRAMURDI

"Harrok galako igual???? o ura asko ta ona delako hemen..."



AMAIA

"Gaua asko gustatzen zitulako."




TXAMO

"Oso ona galdera. 2500 ml ur biltzen den zonaldea da, Artikutza re hortxe egonez, ur leku hezea delako."




XABIER

"Leitzarrak patutako izengoitia; berak burla in ta guk istua botzen ginulako."



XEBE

"Ttikik ta hanka ukerrak galako...ja,ja,ja. Herri malkartsua denez, hankak ukerrak."



MAIO

"Gu berez zapok bezala ga; hasieran gorde- gordek ta harrotzen ganen... salto ta poe ibiltzen ganak."



ZURE TXANDA

Eider Zugarramurdi



2009. urtean lehenbiziko aldiz atera al zinen Peñan?

Ez, 2008. urten atere nitzan lehenbiziko aldiz Peñan.

Zenbat urterekin?

17kin urte hortan 18 ittera niola.

Zenbat kosta zitzaizuen bazkaria?

30 bat euro kostako zen.

Zenbat lagun zineten bazkarian? zenbat emakumek?

Pos eztkit zenbat laun izango giñan bazkarin... ta emakumek, gaztek 4 giñan... biño zarrok e atetzen dia 7-8 bat izango giñan denera gutxi gora behera.


Lotuta atera al zinen? Zergatik? zer moduzko esperientzia?

Ez, enitzan lotuta atere. Indar asko behar men da ta... biño lotuta ez atere ta ere erki pasatzen da atzetik... gero plazara alletu ta bai hondarren zikindu gabe enaiz gelditzen... esperientzia, ikaragarria!!! Nik oso ongi pasatzen dut eun hortan ta atetzen eztianak animatzen ttut atetzera.

Errekan sartu al zinen?

Errekan? Bai, sartzen naiz errekarara. Lehenbiziko saltoa in ber nunen beldur pixkot pasatu nun igual besten bat gañera saltatuko zela... biño behin aurrenekoa inta, berriz saltatzeko prest nitzan.

Jose Anton Elizegi



Zenbat urterekin atera zinen lehenengo aldiz Peñan?

26 urterekin.

Zenbat lagun zineten bazkari horretan?

Gu Peñakin 16 lagun ginen, baino alkattea re gonbitzen zen, kaboa re bai...

Emakumerik ba al zen?

Ez.

Zenbat kosta zitzaizuen bazkaria?

16 lagunek kuota bat ordaindu giñun. Lehenbizikoa bi urtetan 10 pezeta, gero 25 pezeta.

Badakigu sortzaileetako bat zarela. Nondik sortu zitzaizun ideia?

Aizkorbe Iruñen bizittu zen. Bera Peña baten eondu zen. Gero honera etorri zen lanera ta hark karri zuen ideia. Instrumentuk, kordiona, platilluk, kaja, bonboa izaten zian eta gu denan arten jotzen giñittun. Pankarta minatan aitzen zen Koterillok itten zun.

Zuek hasi al zineten hasieratik herritik lotuta ibiltzen? Zer zela eta? Eta errekan sartzearena?

Ez. Luixeri gotuta hasi zen errekan.